

30 urte

STEE-EILAS



Nicolás Alcorta 3, 13.lonja; 48003 Bilbao ☎944100298 📠609163566 bizkaia@stee-eilas.org

Lan osasunaren egunaren eguna dela eta STEE-EILAS eta ESK sindikatuok gaixotasun profesionaleri eman nahi diegu garrantzia, 2008an zehar egingo dugun kanpainari hasiera emango diogularik.

Horretarako hitzaldi hau antolatu dugu: GAIXOTASUN PROFESIONALAK, IXILPEKO EPIDEMIA: Arautegi berriaren azalpena eta martxan jartzeko erronka. Hizlaria Montserrat Garcia Gomez izango da, Osasun Ministeritzako lan osasun arloko arduraduna.

Hitzaldia apirilaren 23an izango da, asteazkena:

DONOSTIAN: 9,30etan, Kutxaren Arrasate aretoan, (Arrasate kaleko 12.ean). Gero handik aterako gara 12,30etan Kursaalaren elkarretaratzea egiteko. Autobusak egongo dira Gasteiztik eta Bilbotik.

IRUÑEAN: arratsaldeko 6etan, ESKren egoitzan (Estafeta kaleko, 61.ean-2.esk)

STEE-EILAS eta ESK sindikatuok kezkatuta gaude gaixotasun profesionalen zerrenda berria indarrean dagoela urte bete pasa ondoren onartutako gaixotasun kopueura igo ez delako. Egoera horren aurrean gure ordezkari, afiliatu eta lagunei azaldu nahi diegu zer egin behar den legea onuragarria izan dadin, eta zeintzuk diren Osakidetza eta Osasunbidearen ardurak, zeintzuk mutuenak, enpresarietak eta sindikatuenak.

Halaber osasun zaintzaren ezaugarriak zeintzuk izan beharko liratekeen jakin nahi dugu.

Gai hauen guztien aurrean genero ikuspuntuan sakondu nahiko genuke.

Gai hauen guztien inguruan lan egin du Montserrat Garcia Gomezek, eta espero dugu informazio zabala bezain praktikoa jasotzea.

Ahal baduzue, etor zaitezte, merezi du eta.

STEE-EILAS